



*Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasuneko diputatu Jabier Larrañagak Arrasateko JMA enpresara egin du gaur bisita, eta, hori dela eta, elkarretaratze bat egin dugu lan zentroaren sarreran. Hain zuzen ere, bisita EAJren industria politika eza estaltzeko propaganda besterik ez dela salatu dugu.*

LABek salatu nahi du propaganda honen guztiaren atzean dagoen industriaren benetako errealitatea oso larria dela. Arduragabekeria itzela da EAJ egiten ari dena industriaren egiturazko arazoaren aurrean.

Honelako bisitekin, ikerkuntzan, garapenean, berrikuntzan eta maila teknologikoan euskal industriaren egiturazko desabantaila estali nahi dute.

Honelako bisitekin, pertsonetan euskal industriak duen desabantaila (jakintzaren galera gazteak kanpora joanda, prekaritatea) estali nahi dute.

Honelako bisitekin, digitalizazioari herri bezala nola aurre egingo diogun erabakitzeko eztabaidaren beharra estali nahi dute.

Saltzen ari diren ke guzti honen atzean, eskualde honetan bertan, Arcelor Mittal, Edesa Industrial, Alfa eta beste hainbat enpresetako langileak daude.

- Espainiako lan erreformaren bidez, enpresa ehuna txikitzen ari dira multinazionalak, nahi dutena egin dezakete, nahiz eta irabazi handiak eduki, Arcelor Mittalen kasuan bezala (2017an, 2.300 milioi euroko etekinak izan ditu iraila arte). Arcelor Euskal Herrira etorri zenetik, 10 urtetan lanpostuen %52 suntsitu du.

- Zerga murrizten dizkie enpresei, aberastasunaren banaketari uko egin arren. Nola liteke Alfako jabeek 2,3 milioi banatu izana irabazi moduan eta orain likidazioan sartzea?

- Industriak egiturazko arazoak ditu, balio erantsian lehiatu beharrean kostuetan lehiatu nahi duelako, prekarietatearen bidez. “Basque” izena jarriko diote baina Espainiako eredia da.
- Enpresen deslokalizazioak ematen ari dira, Nicolas Correean bezala, eta erabakiguneak kanpora ateratzen ari dira, geroz eta gehiago dira kanpoko funtsen esku dauden enpresak.
- Aberastasuna ez da banatzen: inoizko irabazi handienak biltzen ari diren garaietan, lotsagarria da negoziaketa kolektiborako eskubidea ukatua egotea industriako langile askorentzat. Irabaziak eta prekarietatea gora doaz, baina inbertsioak eta aberastasunaren banaketa behera.

Eusko Jurlaritzak, eztabaida publikoari bide eman gabe, alde bakarrez hurrengo 5 urteetako industria plana onartu du. Guk uste dugu gauzak beste era batetara egin litezkeela, 10 neurri jasotzen dituen dekalogo bat proposatzen du LABek, bestelako industria politika bat egingarria dela frogatzen dutenak. Hortaz, Eusko Jurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen diegu “PREKARIETATEA 4, INDUSTRIA 0” estrategia albo batera utzi, eta etorkizuneko industriaren alde egitea, aurreratua teknologikoki, baina baita sozialki eta langileen ikuspegitik ere.

Euskal Herriak etorkizunean izan beharreko industriaren eztabaida ematea eragile eta sindikatu guztien parte-hartzearekin beharrezkoa da. Baina ez dago horretarako borondaterik.

—